

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) idazteari buruzko aurretiko kontsulta publikoa zabalik dago

Herritarrek beren ekarpenak bidali ahal izango dituzte apirilaren 18ra arte

Aurretikako kontsulta publiko hau Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) barruan sartzen da, eta bere helburua da, lehenik eta behin, azaltzea zer arazo konpondu nahi diren ekintza horrekin, zer behar eta aukera dagoen plana onartzeko, zer helburu dituen, eta zer irtenbide alternatibo dauden arautzeko eta ez arautzeko. Bigarrenik, herritarren ekarpenak jasotzea.

Aipatu behar da HAPOren herritarren parte-hartzea zabalduko dela datozen hilabeteetan, hainbat ekintza aurrez aurre eta digitalki, eta horien berri emango da etengabe. Kontsulta aktibo honetan aztertuko da Plan Orokorren errebisioa zertarako den eta zergatik ematen den.

Ekarpenak egiteko epea apirilaren 4tik 18ra arte izango da, udal webguneko Herritarren Partaidetzarako Atalean

Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak

Indarrean dagoen Donostiako HAPO 2010. urtean onartu zen. HAPO 12 urtez garatu ondoren, abiapuntuko kasuak nabarmen aldatu dira, horietan oinarrituta aurreikusi baitziren planeamenduko aurreikuspen eta irtenbide orokorrak, hiria 2010-2020 aldirako eraldatzeko.

Horrek arazo nagusi bat sortzen du: egungo hirigintza-araudia ez dago egungo egoerara egokituta, hiriaren egungo beharrak ase ahal izateko.

Araudia onartzeko beharra eta egokitasuna

12 urtez HAPO garatu ondoren, beharrezkoa da berrikustea; izan ere, abiapuntuko kasuak nabarmen aldatu dira, horietan oinarrituta aurreikusi baitziren planeamenduko aurreikuspen eta irtenbide orokorrak, hiria 2010-2020 aldirako eraldatzeko.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Horrela, Donostiak bere egungo eskaeretara egokitutako hirigintza-plan bat izango du, etorkizuneko beharrei erantzuteko gai izanez.

Arauaren helburuak

HAPO berriaren helburu nagusia, Donostiako lurzorua eta eraikinak arautzea eta antolatzea da, publikoak zein pribatuak. Helburuak, hurrengo hauek dira zehazki: batetik udalerriko lurzorua sailkatzea, bai publikoa baita pribatua ere (hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbaniezina). Bestetik lurzorua kalifikatzea, erabilera xedatuz (bizitegikoa, jarduera ekonomikoak, zuzkidurak...) eta azkenik bolumenak arautzea (eraikigarritasuna, lurzoriuraren okupazioari, altuerei dagokionez).

Laburbilduz, Plan Orokor berriak zer, non eta zenbat egin ahal izango den arautuko du, Donostiako eremu fisikoan, bai lurzoru publikoan bai pribatuan.

Donostia, 2022ko apirilaren 5a